

EuskarAbentura espedizioa: gazteen hizkuntza kontzientziatik mudantzetara pausoz pauso

ALAITZ
ELIZBURU AGIRRE
(EUSKARABENTURA)

JON
ZARATE FRADUA
(EUSKARABENTURA)

AITOR
SALABERRIA OIARTZABAL
(EUSKARABENTURA)



EuskarAbentura espedizioa: gazteen hizkuntza kontzientziatik mudantzetara pausoz pauso

#udaltop17

ALAITZ
ELIZBURU AGIRRE
(EUSKARABENTURA)

JON
ZARATE FRADUA
(EUSKARABENTURA)

AITOR
SALABERRIA OIARTZABAL
(EUSKARABENTURA)

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Ikerketa	4
Kontzientziatik ahalduntzera	8
Aurrera begirako printzak eta erronkak	9
Bibliografia	10

Sarrera

EuskarAbentura gazteen hizkuntza ohituretan eragiteko oinezko espedizioa da. Lehen aldiz 2018an egin zen, eta ordutik, urtero eramaten ditu Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nahiz diasporako 16-17 urte bitarteko 120 gazte euskal geografia, kultura eta historia lagunartean ezagutzera. Uztailaren 1etik 31ra irauten du, 28 etapaz osatu dago, eta 783 kilometro inguru egiten dira, horietatik 480 bat oinez. Done Jakue bideak jarraituz, gazteek Euskal Herria zeharkatzen dute, Mauletik Getxora. Hiriburu guztiak bisitatzen dituzte, baita UNESCOk Euskal Herrian Gizateriaren Ondare izendatutako gunek, basoak, hondartzak, museoak, gari-soroak, leizeak, portuak, gazteluak, belazeak, monumentu nahiz eraikin enblematikoak, herriak, gatzagak eta baserriak ere. Eduki anitzeko mintegi, tailer zein ekimenek aberasten dute abentura. Izan ere, aldiro-aldiro hainbat esparrutako profesionalak (musikariak, soziolinguistak, aktoreak, bertsolariak, kazetariak, dantzariak, idazleak, kirolariak...) espediziora batzen dira gazteekin ordu batzuk konpartitu eta jakintzak elkar trukatzeko.

Hauexek dira Euskarabenturaren helburu nagusiak:

1. Gazteen artean eta aisialdian euskararen aldeko hizkuntza-mudantzak sustatzea gunek linguistiko zainduen bidez.
2. Gazte euskaldunen sare bat sortzea eta elikatzea.
3. EHko natura-ondasun eta ondasun historiko zein kulturalen partekatzea bermatzea.
4. Balore osasuntsu eta justuak lantzea eta transmititzea: parekidetasuna, bizikidetzak, ardura, autonomia, bizi-ohitura osasuntsuak, ingurumenarekiko begirunea, turismo eredu jasangarria...

Espedizioa, bidenabar, ikerketa soziolinguistikoak egiteko testuingurua izan da. Soziolinguistika Klusterreko kideekin elkarlanean, hizkuntzen soziolinguistikarekin lotutako azterketa egin da. Lau urtez ikertu da EuskarAbenturak gazteen euskararen erabilerari eta hizkuntzarekiko atxikimenduari zein ekarpen eta nolako eraginarekin egiten dion, zehazki, 2021, 2022, 2023 eta 2024ko espedizioetan. Honi esker, aisialdi gidatuan gazteen artean hizkuntza-mudantzak gerta daitezkeen behar diren baldintzak definitu eta eskaini nahi dira. Gainera, denboran zehar eta gazteen partaidetza aktiboarekin hizkuntza-mudantza prozesu horien jarraipena ere egin nahi da.

Zeregin horretarako, ezinbesteko lanabesa izan da gunek linguistiko zainduen teoria (Puigdevall et al., 2021), baita hizkuntza mudantzak egiteko beharrezko baldintzak bermatzeko saiakera ere. Hizkuntza mudantzaz hitz egiterakoan, hizkuntza ikastetik erabiltzerako urratsaz ari gara (Pujolar et al., 2010). Euskal Herrian, berriz, hizkuntza gutxitu bat ikasi eta barnertzetik erabiltzera egin beharreko jauziaz (Hernandez & Altuna, 2020), eta prozesu hori ez da soilik hiztun berrietara mugatzen, gazte guztiei eragiten baitie. Halako prozesuak ezin ditu hiztunak bere kasa egin, komunikazio jardura eta modu (dialekto, erregistro..) ugaritan parte hartu behar duelako, beste hiztunekin sozializatuz hiztun legitimo gisa aitortua izateko, besteak beste. Horietarako guztietarako abaguneak eskaintzen ditu euskarabenturak, taldetasunaren garrantziaren aitortzatik, eta kirolean oinarritutako testuinguru batetik, hizkuntza mudantzak hauspotzeko.

Ikerketa

A) IKERKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Hizkuntza ohituretan eragiteko ekimenek maiz ez dute horien eraginkortasuna zehazteko ebaluazio-prozesurik diseinatuta (McIvor, 2009) nahiz eta beharrezkoa izan. Are gehiago, soziolinguistikako lan asko eta asko marko legalean txertatzen dira (Wetzel, 2006), baina ez dute biziberritze prozesuen nondik norakoa aztertzen. Bestalde, denbora daramate ebaluazioaren garrantzia aldarrikatzen (Grin & Vaillancourt, 1999), bereziki baliabideak modu egokian erabili nahi dituzten eta etengabeko hobekuntzaren bila dabilzan hizkuntza komunitateen kasuan. Gainera, ekimenak urteetan errepikatzen badira, ikerketa longitudinalak burutzeko premia dago, ez baitago horrelako lan askorik (Whaley, 2003). Hain zuzen ere, horixe da ikerketa-egitasmo honen helburua: hainbat tresna konbinatuz EuskarAbenturak duen inpaktua kualitatiboki eta kuantitatiboki neurtzea.

Euskararen biziberritzean aisialdi gidatua giltzarri jo izan da gazteen hizkuntza ohiturak euskarara lerratzeko. Intuizio hori, 2018ko eta 2019ko espedizioetan ere antzemandakoa, aski izan da euskararen normalizazioan halako proiektuak martxan jartzea justifikatzeko. Hala ere, intuizio horiei berme sendoagoa emateko egin da ikerketa Euskarabenturan.

B) METODOLOGIA

Espedizioko hizkuntza arduradunak diseinatu, koordinatu eta gidatu du ikerketa, etengabeko elkarlanean izanik beste bost ikerlarirekin, Soziolinguistika Klusterrarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin edota Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin.

Helburu nagusia izan da EuskarAbenturaren testuinguruan gertatzen diren (edo ez diren) hizkuntza-mudantzen ezkutuko faktoreak topatzea eta azaltzea. Horretarako, lau tresna erabili dira: hizkuntza neurketak, galdetegiak, egunerokoa eta talde elkarrizketak. Izan ere, neurketa tresna horien konbinazioak espedizioaren inpaktuaren argazkia zehatzago eskuratzea ahalbidetu du, jakina baita "ikertzeko metodo kualitatiboa eta kuantitatiboa elkarren osagarri dir(ela), eta gizarte fenomenoaren ezagutza zehatzena lortzen d(ela) ikerketa prozesuan bi metodoak nahasten direnean" (Juaristi, 2003). Beraz, hizkuntza-mudantza bezalako gizarte fenomenoaren bere konplexutasunean eta aberastasunean aztertzeke hainbat tresna erabili da, eta konbinazio hau ikerketa lanaren indargune bat da. Hauxek dira erabilitako neurketa tresnak.

Hizkuntza erabilera

Espedizioan hizkuntza neurketak egiteko Soziolinguistika Klusterraren kale-neurketak egiteko aplikazioa erabili da. Aplikazioari moldaketak egin zaizkio espediziora egokitzeko, zenbait aldagai gehitu edo aldatzen. Adibidez, gazteen gune soziolinguistikoa zehazteko aukera, elkarrizketa elebidunetan zein hizkuntza gailentzen den zehazteko aukera, edota jaso nahi den elkarrizketan hezitzaileen presentzia dagoen ala ez adierazteko. Erabilera neurketak espedizioko egun jakin batzuetan egin dira, Klusterraren gidak jarraituz (Altuna & Basurto, 2013).

Galdetegiak

Galdetegiaren diseinuan formularioak ahalik eta gehien laburtzeko eta sinplifikatzeko lana egin da, baita hizkera Euskal Herriko txoko guztietako gazteek ulertzeko modukoa izatea ere. Guztira hiru galdetegi pasa zaizkie gazteei: espedizioaren aurretik, espedizioa amaitzean eta espedizioa bukatu eta sei hilabetera.

Espedizioaren aurretik. Gazteen profil soziolinguistikoa ezagutzeko. Galderak bi ataletan banatzen dira: datu orokorrak eta ikergaiari lotutakoak (hizkuntza gaitasuna eta erabilera, kultur kontsumo ohiturak eta pertzepzio, jarrera eta ideologia).

Espedizioa amaitzean. Gazteen profil soziolinguistikoa eta espedizioaren inpaktua ezagutzeko. Galderak hiru ataletan bereizten dira: datu orokorrak, espedizioan zehar eta espedizioaren amaieran. Azken bi horien barnean, pre galdetegiko ikergaiari lotutako galdera multzoak errepikatzen dira.

Espediziotik sei hilabetera. Gazteen profil soziolinguistikoa eta espedizioaren inpaktua ezagutzeko. Galderak bi ataletan banatzen dira: datu orokorrak eta ikergaiari lotutakoak (hizkuntza gaitasuna eta erabilera, kultur kontsumo ohiturak eta pertzepzio, jarrera eta ideologia).

Jzioquitarren egunerokoa

Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia (Soziolinguistika Klusterra, 2020) ikerlana inspirazio, gazteei hausnarketak garatzeko eguneroko digital moduko bat egiteko aukera eskaini zitzaizen, borondatez parte hartzeko. Espedizioan zehar bi ideia lantzea proposatu zitzaizen: "euskalduna naiz" (noiz, zertan... sentitzen naiz -edo ez- euskalduna) eta "euskaraz egiten dut" (noiz, norekin, zenbat hitz egiten dut euskaraz? Eta beste hizkuntzetan?). Hala, egunerokoetan goian aipatutako bi galdera horiekin lotutako pasadizo, pentsamendu, gertaera eta sentimenduak grabatu edota idatzi dituzte hizkuntza arduradunak gazteen bizipenak jaso ditzan.

Talde elkarrizketak

Hizkuntza mudantzen inguruko arlo garrantzitsuenak ezagutzeko tresna izan da, baita gai horren inguruan taldekideen artean egon daitezkeen ikuspuntuak ikertzeko eta adostasun eta desadostasunak aztertzeko ere. Ordubete inguruko saioetan, genero eta lurralde oreka bermatuz hizkuntza arduradunak dinamizatutako eztabaidak egin dira.

Hizkuntza arduradunak ikerketa gidatzeko ardura izateaz gain, gazteei begirako egitasmoak eta hezitzaileentzako formazioa ere koordinatzen ditu. Tartean, hezitzaileen diskurtsoak euskararekiko EuskarAbenturako hezitzaileentzat propio prestatutako giden bitartez lantzen dira, hezitzaile berritsuaren ikuspegiari jarraituz (Eizmendi, 2015).

C) DATUEN ANALISIA

Aipaturiko neurketa tresnen bidez, urtez urteko ikerketa txostenak osatu dira, eta baliatu Euskarabentura diruz sostengatzen duten adimintrazioen aurrean zuriak egiteko. Horien artean, 2021ekoak eta 2022koak finkatzen dituzte ikerlanaren nondik norako nagusiak, eta hurrengo urteetakoek, aldiz, neurketen emaitzak jakinarazten dituzte. Lau urteetako txosten horiek baliatu dira errebisio lan honen emaitzak eta eztabaida osatzeko. Horien bilana duzue hurrengoa.


D) EMAITZAK

Espedizioa monitorizatzeko egindako ahalegin horretatik, emaitza nagusien bilduma ekarri da hurrengo lerroetara, eta hiru atal nagusitan bereizi dira emaitzak.

Hizkuntza gaitasuna

Gazteek aitortutakoaren arabera, espedizio hasieran euskaraz hobeto moldatzen zirenen kopurua igo egin zen espedizio bukaeran. Euskaraz zein erdaraz berdin moldatzen zirenen kopuruak ere gora

egin zuen. Erdaraz hobeto moldatzen zirenen kopuruak, ordea, espedizio guztietan egin zuen behera espedizio bukaerarako.



Euskara erabileran eragiten duten faktoreen artean, autopertzeptzio linguistikoa faktore garrantzitsua da. EuskarAbenturako partaideen artean halako aldagaiak neurtu dira galdetegiaren bidez. Ehuneko handiak aitortzen du euskara hobetu izana hilabete hartan. Horietako askok, gainera, haien gaitasuna asko edo guztiz hobetu dela diote. Partaideen gehiengoak beren euskara mailarekin guztiz edo oso harro dago espedizio amaieran. Askok adierazi dute ez direla deseroso edo jenatuta sentitu espedizioan euskaraz egiteagatik.

	2021	2022	2023	2024
Maila hobetu	% 85	% 70	% 80	% 83,8
Euskara mailaz harro	% 72 (+7)	% 78 (+6)	% 82 (+6)	% 79,1 (+2)
Ez deseroso	% 87 (+53)	% 60 (+16)	% 55 (+15)	% 77,1 (+31,9)

Talde elkarrizketetan atal honetarako beste hainbat gako jaso dira. Euskaraz aritzerakoan deseroso sentitzeko arrazoiei buruz galdetuz gero, batzuek euskara mailaren inguruko zalantzak adierazi zituzten. Halako testigantzak jaso ziren: Mireiak dio batzuek aipatu ziotela nahiago zutela erdaraz egin haien artean "sentiarazten zietelako beren euskara maila baxuagoa zela eta lotsa ematen zuelako" eta horren parean, "konbentzitzen" saiatu zen: "saiatzen bazarete positiboa izango da eta inork ez dizue barrerik egingo". Margaretek dio, egun batzuk pasata "hobeto sentitu dela besteekin eta lotsa gutxiago duela". Julenek esplikatzeko du EuskarAbenturan "konfiantza gehiago" zuela jendearekin eta "euskaraz hitz egitea errazagoa" zela, "konfiantza hartu zuela". Gainera, EuskarAbenturako aniztasun linguistikoa (askotariko euskalkien presentziak) eta bereziki Kike Amonarrizen hitzaldiak euskalkien ikuspuntu baikorrago eta epaiketarik gabeko batera bultzatu dituela. Horrenbestez, pentsa daiteke euskarabenturak hainbat gazteren autokonfiantza linguistikoa handitu duela euskalkiei zein euskara batuari dagokionez.

Hizkuntza erabilera

Lau urteko balantzea egiterakoan hainbat aldagai hartu behar dira aintzat datuen irakurketa zintzoa egiteko. Alde batetik, neurketa metodologiak urtean urteko ezaugarrien arabera moldatu behar izan dira. Urte batzuetan ez da izan finantzazio arazorik eta hizkuntza arduraduna hilabete osoan aritu da lanean. Azken bietan, berriz, hizkuntza arduradunak bina aste eman ditu espedizioan, eta aldi horietan egin ditu neurketak. Bestetik, gazteen profilean aldaketak izan direla sumatzen dugu, jatorrizko gune soziolinguistikoak hautaketan aintzat hartzen diren arren, gune erdaldunenetakoak ere arnasmunetxo txikietatik heldu direlako. Arrazoi horiek guztiek eragozten dute lau urteetako erabilera datuak hartu eta bateratzea. Hala ere, honako lerroburu hauek azpimarratu nahi dira.

Euskararen erabilerearen ehuneko zehatza baino, neurketa hauetatik euskararen erabilera nahikoa, arau izatea, bermatu ote den jakitea interesatzen zaigu batik bat. Hala izan da espedizio guztietan, %85etik gorako erabilera neurtu izan baita. Hortik haratagoko azterketak egiteko (gune soziolinguistikoak nola eragiten duen, adibidez) hobe da urtez urteko txostenak kontsultatzea.

Erabilerrari lotuta, urtearen araberako ñabardurak aipagarriak izan daitezke. 2021ean, Covidaren murrizketei aurre egiteko espedizioa bitan zatitu, eta bi txandatan egin zen, 10 eguneko iraupenarekin. Bi aldagai ekarri zituen horrek, iparraldeko jendearen presentzia areagotzea, eta eskuhartzearen iraupena laburtzea. Bestalde, 2023an, ingurune erdaldundu bateko gazte talde batek kanpotik ekarritako hizkuntza ohiturei irmo eutsi zien, gainerakoengan eraginez.

Jarrera, ideologia eta kontzientzia soziolinguistikoa

Euskararekiko diskurtsoak haren baitan biltzen ditu hizkuntzarekiko jarrera, ideologia, eta, azken batean, kontzientzia soziolinguistikoa. Euskararen moduko hizkuntza minorizatu baten kasuan, gertutik zaintzeko aldagaiak dira, hizkuntzaren beraren osasunaren adierazle delako haren hiztunek kontzientzia linguistikoa garatuta duten ala ez determinatzea. Lau urteetako emaitzak bilduta, lerroburu nagusia Euskarabenturak euskararekiko atxikimendua indartzen duela da, euskararekiko jarreretan saiakerak aitortzen dituztelako gazteek, eta aurretik jabetu gabeko euskararen egoera soziolinguistikoaz ohartzen direlako, haien burua eskenatoki horietan zein roletatik aritzen den aztertuz.

Jzioquitarren jarrerei erreparatzen badiegu, galdetegiaren informazioa oinarri hartuta, urtero partaideen ehuneko handi batek (% 88 eta %94 artean) espedizioan zehar euskarari eusteko jarreraren bat hartu duela dio. Gainera, jarrera horien artean ohikoena espedizioan zehar lehen hitza euskaraz egitea izan da urtero.

Etorkizunari begira, jzioquitar guztiek motibazioa dute eta (horien % 92tik gora urtero motibazio handia edo erabatekoa du) espedizioaren ondoren haien egunerokotasunean euskaraz (gehiago) aritzeko. Parte hartzaile askok aipatu dute galdetegiko oharren bidez espedizioaren ondotik hizkuntza ohiturak aldatzeko borondatea, hona ekarri ditugu zenbait:

- > “Hemendik kanpo ez dudalako ezagutu zer den 24/7 euskaraz aritzea, eta hemen, 24/31 euskaraz bizitzeko aukera izan dut. Hemen konturatu naiz euskaraz bizi nahi badut, kanpoan ere zerbait hobetzeko badudala”
- > “Euskarabenturari esker espediziotik kanpo euskara gehiago erabiltzera animatu nau, eta badakit euskarabenturan egindako lagunekin euskaraz hitz egin dezakedala inungo arazorik gabe, espazio seguru bat.”
- > “Euskarabentura ostean nire eguneroko euskara erabilera asko igo da, ta erdaraz egiten nuen lagun batzuekin euskaraz egiten hasi naiz.”

Kontzientzia soziolinguistikoari erreparatzen badiogu, euskararen erabilera urriak hizkuntza beraren biziraupenean duen eraginaz ohartzeko balio izan die espedizioak gazteei. Hortik abiatuta, hausnarketara bideratutako talde dinamiketan, hizkuntza-ohituretan eman beharreko aldaketaz hitz egiten dute jzioquitarrek, eta beraz, gazteen hizkuntza-ohiturak giltzarri direla baieztatzen dute.

Espedizioko aniztasun linguistikoak euskararen errealitate soziolinguistiko anitzez jabetzeko balio die gazteei, gazte batek esandakoa oinarri; "euskarak leku guztietan ez du posizio berdina". Zenbait gaztek egunerokotasunean hizkuntzaren erabilerari dagokionean dituzten pribilegioez ere kontzientzia hartzeko mugarri izan da espedizioa. Hauek, "zorte" hitza erabili izan ohi dute gazteek euskaraz bizitzeko aukera "errelagoak" dituzten testuinguruez hitz egiterakoan. Eta "miresgarri" hitza erabili ohi dute eremu erdaldunetan euskaraz hitz egiteko hautua egiten duten hoiengana zuzentzeko, hala, euskara prestigio edota balio handiko posizioan kokatzen dute. Halaber, espedizioan euskaraduna izateak harro sentiarazten ditu, eta ahalduntze horrekin batera beraien identitatea edota ideologiak errotzen dira.

Kontzientziatik ahalduntzera

Neurketa tresnen konbinaziotik eskuratutako emaitzek kontzientzia linguistikoan hobekuntzak marrazten dituzte. Izan ere, hizkuntza gaitasunean aurrerapausoak aitortzen dituzte gazteek, euskara espedizioko arau izatea bermatuta dago, eta hizkuntzarekiko jarrerak positiboak dira. Emaitza horien guztien bidez, gazteek espedizioan zehar kontzientzia linguistikoa indartu dutela, eta horri esker hiztun moduan ahaldundu direla baieztatu daiteke.

Ahalduntze horren erakusle dira gazteen euskararen aldeko posizionamenduetan ematen diren indartzeak adierazten dituzten testigantzak, egunerokoa egiterakoan euskaldun noiz sentitu diren galdetzerakoan jasotakoak. Eskolatik kanpo euskara erabiltzeko ohiturarik ez dutenek diote espedizioko parte izate hutsak euskaldun sentiarazten dituela, bereziki euskaraz bizitzeko aukera eman baitie: "lagunekin euskaraz hitz egitean", "24 orduetan euskaraz hitz egiten egotean", "euskara ondo hitz egiten dudala esan didatenean", "euskaldun sentitu naiz momentu sinpleetan: besteekin euskaraz mintzatzean Euskal Herriari buruz, euskarari buruz". Badira bestalde, jzioquitarrek bereziki euskaldun sentitzera bultzatu dituen espedizioko aspektu edota momentuak, esate baterako, kulturari lotuak: euskarazko musika entzutean, dantzatzean, edota denok batera abestean, baita espedizioan zehar gune erdaldunetako jendeari espedizioa zertan datzan azaltzean ere.

Bestalde, egunerokoan zein talde dinamiketan gazte dezentek aipatu dute espedizioari esker hizkuntzarekiko zuten kontzientzia eta lotura estutu egin direla: "euskararen inguruan kontzientzia gehiago hartzen lagundu dit. Lehen hizkuntza bezala ikusten nuena orain altxor bat bezala ikusten dut" dio batek, euskaraz "maitemindu" dela beste batek. Batzuek atxikimendu hori konpromisoarekin lotu dute "Orain euskarekiko dudak kontzientzia handiagoa da eta horregatik etorkizunean gehiago erabiltzen saiatuko naiz" edo "Hemendik aurrera nire euskara zein inguruekiko euskararekiko kontzienteagoa izan nahiko nuke, eta ardura gehiago hartu".

Betiere jarrerekin loturik, badirudi espedizioaren amaieran jzioquitar askok etorkizunera begira hainbat asmo eta erronka dituztela. Batzuen kasuan etorkizuneko proiektio hauek gaitasunarekin dute zerikusia baina gehienek kasuan, erabilerarekin. "Hilabete hau eta gero badakit euskaraz kontzienteki edo inkontzienteki gehiago hitz egingo dudala" dio Loreak, eta hizkuntza ohiturak aldatzera salto egiteko xedea du Norak: "Hemendik aurrera, kalean, euskara gehiago erabiltzen hasiko naiz. Horretarako lehen hitza euskaraz egingo dut eta nire lagun batzuekin euskaraz hitz egiten hasiko naiz". Ildo horretatik joko du Eneritzek ere: "Hainbat erronka jarri dizkiot nire buruari. Badakit zaila izango dela nire betiko lagunekin euskaraz hitz egiten hastea, baina saiatzeagatik ez dut ezer galtzen. Bestalde, saiatuko naiz norbaitekin hitz egitean euskaraz hastea behintzat nire ingurua euskaldunagoa bihurtzeko".

Espedizioan ezagututako pertsonekin harremana mantentzen jarraitu nahiko luketela ere hainbatek aipatu dute: "Hemen sortu ditugun harremanak euskaraz hasiak asko lagundu nau, izan ere, horri esker hemendik aurrera haiekin beti euskaraz egitera behartuko dut nire burua" edo "Oso pozik nago egin ditudan harremanekin eta espero dut egin dugun harremana inoiz ez galtzea" irakurri dugu erantzunetan.

Aurrera begirako printzak eta erronkak

Lau urteko ikerketatik espedizioak bide interesgarriak ireki dituela antzeman daiteke. Ekimenaren ezaugarri jakin batzuek, gako batzuek, ahalbidetzen dute lehenik hizkuntza kontzientzia garatzea, hizkuntzarekiko autoestima hobetzea, eta ondorio moduan hizkuntza mudantzak gertatzea. Prozesu horren gakoak aletzen hasteko, Euskal Herriko bazter askotako gazteak izanda, kontzientzia linguistikoa garatzeko testuinguru aproposa sortzen da ekimenean. Labur adierazita, herrialde guztietako gazteak espedizioan izateak Euskal Herria bere osotasunean marrazteko aukera ematen du, eta horri tailer kulturalak, musikaren bisitak eta kultur transmisioarekin lotutako era guztietako ekintzak egitear eker, gazteak jabetzen dira lurraldeaz gain Euskal Herria hiztun komunitate oso bat dela, eta euskara dela unibertso kultural horretarako sarbide eta berau bizitzeko bitarteko.

Bestalde, ekimenak asmatu du hizkuntza mudantzetarako lehen mailako baldintzak bermatzen, euskara arau izan dadin espedizioan zehar. Horretarako, garrantzitsuak dira espedizioaren hasieran gazteei sinatuarazten zaien kontratua, eta pertzepzio aldetik ere euskararen arnagune baten parte izango diren konbentzimendua. Bigarren mailako baldintzei dagokienez, hainbat gako ahalbidetzen dituzte hizkuntza mudantzak. Horien artean, garrantzitsua da hizkuntza maila askotarikoa duen gazte multzoa osatzea, norbere hizkuntza gaitasunaren pertzepzioa hobetzen laguntzen duelako askotariko maila duten gazteekin erlazionatzeak. Izan ere, euskalki, hizkuntza maila eta erregistro aniztasuna hiztunen autoestima hobetzeko bitarteko dira.

Oro ez da urre, ordea, espedizioak baditu oraindik orain hobetzeko erronkak. Alde batetik, gune linguistiko zaindu horiek eraikitze gaitasunaren hezitzaileen formazioa funtsezkoa da, eta hezitzaileek gero eta ziklo laburragoak egiten dituzte aisialdian. Horren ondorioz, zaila izan daiteke hezitzaile berritsuaren filosofiaren baitan jardungo duten eta nazio ikuspegiak duten hezitzaileak izatea, edo horien formazioa bermatzea.

Bibliografia

- Altuna, O., & Basurto, A. (2013). *A Guide to Language Use Observation: Survey Methods*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eizmendi, I. (2015). *Gu bai hezitzaile berritsuak. Irakasleak ikasleen euskararen erabileran eragiten*. Bizkaiko Udalak.
- Grin, F., & Vaillancourt, F. (1999). The cost-effectiveness evaluation of minority language policies: Case studies on Wales, Ireland and the Basque Country. *Flensburg: European Centre for Minority Issues*.
- Hernandez, J. M., & Altuna, J. (2020). EUSKARA KIROLKIDE Lanketa Teoriko- Kontzeptuala. *Soziolinguistika Klusterra*.
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte Ikerketarako Teknikak Teoria Eta Adibideak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- McIvor, O. (2009). Strategies for Indigenous language revitalization and maintenance. *Encyclopedia of Language and Literacy Development*, 1-12.
- Puigdevall, M., Pujolar, J., & Colombo, A. (2021). Linguistic safe spaces and stepping stones: rethinking mudes to Catalan through the lens of space. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*.
- Pujolar, J., Gonzalez, I., & Martinez, R. (2010). Les mudes lingüístiques dels joves catalans. *Llengua i ú s. Revista Tecnica de Política Lingüística*, 48.
- Wetzel, C. (2006). Neshnabemwen renaissance: Local and national Potawatomi language revitalization efforts. *American Indian Quarterly*, 30, 61-86.
- Whaley, L. (2003). The future of native languages. *Futures*, 35.

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**

www.udaltop.eus